# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Foru Aginduak*

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

6980

**164/2011 FORU AGINDUA, azaroaren 24koa, Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputaturen martxoaren 28ko 152/2011 Foru Aginduaren bidez ezarritako baldintzak onartzen dituena. Azken foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen Urizaharreko udal planeamenduaren arau subsidiarioen aldaketa espedientea, hiri lurzoruko 1 poligonoko 917 eta 918 lurzatiei eta 924 lurzatiaren zati bati dagokiena.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren martxoaren 28ko 152/2011 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onarpena ematen zitzaion aipatutako espedienteari, baldin eta foru agindu horretan ezartzen ziren zenbait baldintza betetzen baziren.

Bigarrena.- 2011ko abuztuaren 1ean sarrera eman zitzaion aldundiaren erregistro orokorrean espediente horren testu bateratuari. Testu bateratu horretan bete egiten ziren ondoko baldintzak: bideragarritasun ekonomikoaren azterlanari buruzkoak, eragindako azaleren gaineko eskubide errealen jabe eta titularren identitateari buruzkoak eta eremuaren mugaketari buruzkoak –A-2124 errepideko zeharbideko egokitze proiektura egokituz eta eremura berorren hegoaldera dagoen bidetik ibilgailuak sartzeko sarbide beharra aintzat hartuz–.

Hirugarrena.- Hirigintza Zerbitzuak, 2011ko abuztuaren 7ko idazki bidez, Urizaharreko Udalari eskatu zion espedientea, egoki zigilatuta, eta haren kopia bi, euskarri informatikoan, berriro bidal ziezazkiola.

Laugarrena.- Eskatutako agiri horiei 2011ko azaroaren 4an eman zitzaien sarrera aldundiaren erregistro orokorrean.

II.- OINARRIAK

Igorritako agiriak aztertu dira eta egiaztatu da aipatutako foru aginduan xedatutakoa betetzen dutela, hau da, foru agindu horrek zehaztutako aldaketak jasotzen dituela.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputaturen martxoaren 28ko 152/2011 Foru Aginduaren bidez ezarritako baldintzak betetzat ematea. Foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen Urizaharreko udal planeamenduaren arau subsidiarioen aldaketa espedientea, hiri lurzoruko 1 poligonoko 917 eta 918 lurzatiei eta 924 lurzatiaren zati bati zegokiena.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortu du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan; horretarako, bi hilabete izango dira, jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 24a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko Diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

**ARAUDIA**

Beste ordenantza bat egiten da, hain zuzen ere 7 zenbakikoa eta SU7 arean aplikatuko da.

Arau subsidiarioen agirian jasotzeko, 159., 160., 161., 162. eta 163. artikuluen edukia atzeratu egin da eta 164. artikulua gehitu. Horiek

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Órdenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

6980

**ORDEN FORAL 164/2011, de 24 de noviembre, aceptación del cumplimiento de las condiciones impuestas en la Orden Foral 152/2011, de 28 de marzo, del Diputado Foral de Administración Local y Equilibrio Territorial, por la que se aprobó definitivamente el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Peñacerrada, referida a las parcelas del polígono 1 del suelo urbano, nº 917, 918 y parte de la 924.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Mediante Orden Foral 152/2011, de 28 de marzo, del Diputado Foral de Administración Local y Equilibrio Territorial, se aprobó definitivamente el expediente de referencia, quedando condicionada dicha aprobación al cumplimiento de una serie de condiciones que dicha Orden establecía.

Segundo.- Con fecha 1 de agosto de 2011 tuvo entrada en el Registro General de la Diputación un texto refundido del expediente cumpliendo las condiciones citadas relativas al estudio de viabilidad económica, a la identidad de todos los propietarios y titulares de derechos reales sobre las superficies afectadas, sobre la definición del ámbito adaptándolo al proyecto de acondicionamiento de la travesía de la carretera A-2124 y a la obligatoriedad de contemplar el acceso rodado al ámbito desde el vial situado al Sur del mismo.

Tercero.- En escrito de fecha 7 de agosto de 2011 el Servicio de Urbanismo requiere al Ayuntamiento de Peñacerrada la nueva remisión del expediente debidamente diligenciado así como 2 copias en soporte informático.

Cuarto.- Con fecha 4 de noviembre de 2011 tienen entrada en el Registro General de la Diputación los documentos solicitados.

II.- FUNDAMENTOS

Analizada la documentación aportada se comprueba que ha dado cumplimiento a las modificaciones impuestas en la Orden Foral mencionada.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Dar por cumplidas las condiciones impuestas en la Orden Foral 152/2011, de 28 de marzo, del Diputado Foral de Administración Local y Equilibrio Territorial, por la que se aprobó definitivamente el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Peñacerrada, referida a las parcelas del polígono 1 del suelo urbano, nº 917, 918 y parte de la 924.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 24 de noviembre de 2011.– La Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

**NORMATIVA**

Se define una nueva ordenanza, la Ordenanza 7, que será de aplicación en el Área S.U.7.

Para reflejarla en el documento de Normas Urbanísticas se ha desplazado el contenido de los últimos artículos 159, 160, 161, 162

horrela, orain 159. artikuluak SU7ri buruzko 7 ordenantza zehaztuko du eta gainerakoek egungo testuari eutsiko diote, artikulu bat atzerago, ordea. Hau da, lehen 159. artikuluak zioena orain 160.ak esango du.

**Hona hemen 159. artikuluaren testu berria. 7. ordenantza. Urizaharreko SU7 area.**

1.- Aplikazio eremua.

Ordenantza hau SU7 areari aplikatuko zaio. Area horren mugak 5.01-M, 5.01Bis-M, 5.07-M eta 5.07Bis-M planoetan zehazten dira. Area hori Urizaharreko hiri lurzoruaren zati da eta, gutxi gorabehera 2.960,00 $m^2$ ditu. Horietatik 1.632,78 $m^2$ 918 katastro lurzatiari dagozkio, 338,57 $m^2$ 917 katastro lurzatiari eta 442,83 $m^2$ 924 katastro lurzatiaren zati bati.

2.- Arearen deskripzioa eta eraketa.

SU7 area Urizaharreko hiri lurzoruaren barruan dago, herrigunea zeharkatzen duen A-2124 errepideari mugakide. Kalifikazio xehatu ezberdina duten bi zonak osatzen dute. A zona: iparraldean dago, 924 katastro lurzatiaren zati bat hartzen du eta informazio zentro gisa erabiliko den pabilioi batek okupatzen du. Zona hori komunitate ekipamenduaren sistema orokorreko zati da.

B zona: hegoaldean dago, 1 poligonoko 917 eta 918 katastro lurzatiak eta bi kale perimetral hartzen ditu bere baitan, ibilgailuen lur gaineko aparkaleku gisa erabiliko da eta komunikabideen sistema orokorreko zati da.

3.- Antolamendu xehatuaren garapen araubidea.

Ordenantza honetan zehazten da antolamendu xehatua; beraz, ez da beharrezkoa garapen plana idaztea. Dena den, area honen eremuari buruzko xehetasunezko azterlana idatzi beharko da, lerrokadurak, sestrak eta etorkizuneko eraikinaren oinarrizko bolumena zehazteko. Xehetasunezko azterlan horretan jasoko da ibilgailuak eremu horren hegoaldean dagoen bidetik sartuko direla. Era berean, sarbide horren ezaugarriak, neurriak eta biraketa erradioak zehaztuko dira, Arabako Foru Aldundiaren Mantentze Zerbitzuaren txostena betez eta zerbitzu horren baimena izan ondoren.

4.- Planeamendua gauzatzeko araubidea.

Planeamenduaren gauzatzea ahalbidetze aldera, 918 katastro lurzatia eta hartan dauden eraikinak desjabetzeko, gehienez, zortzi urte izango dira, 2010eko maiatzeko aldaketa puntual hau behin betiko onartzen denetik aurrera.

5.- A zonari aplikatuko zaion araudia.

5.1. Eraikin motak.

Egun dagoen eraikinari eutsiko zaio. Eraikin horrek bi solairu izango ditu (B+1) eta, gehienez, 7 metro izango ditu hegalera. Halaber, eraikina berriro eraikitzea onartuko da; baina, eraikin berriak ez du zaharrak baino bolumen handiagoa izango.

5.2. Baimendutako erabilerak.

Hirigintza arauen 81. artikuluan zerrendatutako eta zehaztutako zernahi komunitate ekipamendu erabilera baimentzen da: hezkuntza, kultura, aisia...

Horrez gain, erabilera osagarri gisa hirugarren sektorekoak onartzen dira; hain zuzen ere, 82. artikuluan zerrendatutako eta zehaztutako klase guztiak.

5.3. Eraikin berriei edo birgaitzeei aplikatu ahal zaizkien eraikitze parametroak.

Eraikigarritasuna, gehienez: 2 $m^2t/m^2s$

Gutxieneko lurzatia: egun dagoena. Ez da lurzatikatzerik onartuko.

Gehieneko garaiera: 7,00 m hegalera (B+1).

Lurzatiaren okupazioa, gehienez: egun dagoen eraikinak hartutakoa.

6.- B zonari aplikatuko zaion araudia.

6.1. Eraikin motak.

Aparkalekuetan baino ez da baimentzen markesina estaliak eraikitzea.

y 163, añadiéndose uno nuevo, el 164, de forma que el artículo 159 define la Ordenanza 7 sobre S.U.7 y los siguientes artículos mantienen el mismo texto actual pero con su número desplazado en una unidad con respecto a la numeración actual.

**Nueva redacción del Artículo 159. Ordenanza 7. Área S.U.7 de Peñacerrada-Urizaharra.**

1.- Ámbito de aplicación.

Se aplica esta ordenanza sobre el área definida como S.U.7, cuya delimitación se señala en los planos 5.01-M, 5.01Bis-M, 5.07-M y 5.07Bis-M. Está incluida en el Suelo Urbano de Peñacerrada-Urizaharra y tiene una superficie aproximada de 2.960,00 $m^2$, de los cuales 1.632,78 $m^2$ corresponden a la parcela catastral 918, 338,57 $m^2$ a la parcela catastral 917 y 442,83 $m^2$ a la parte de la parcela catastral 924.

2.- Descripción y composición del Área.

El Area S.U.7 está situada dentro del perímetro delimitador del Suelo Urbano de Peñacerrada-Urizaharra, lindando con la carretera A-2124 que atraviesa dicho núcleo. Se compone de dos zonas con diferente Calificación Pormenorizada. La situada más al Norte (Zona A) que comprende parte de la parcela catastral 924 y está ocupada por el pabellón que se destinará a Centro de Información, forma parte del Sistema General de Equipamiento Comunitario.

La Zona B, situada al Sur, comprende las parcelas catastrales 917 y 918 del Polígono 1 y las dos calles perimetrales, se destinará a aparcamiento de vehículos en superficie y forma parte del Sistema General de Comunicaciones.

3.- Régimen de desarrollo de la Ordenación Pormenorizada.

La Ordenación Pormenorizada está definida en la presente ordenanza y por tanto no es necesaria la redacción de ningún Plan de Desarrollo, no obstante sobre la totalidad del ámbito de esta área se deberá redactar un Estudio de Detalle para determinar las alineaciones, rasantes y volúmenes básicos de la futura edificación. En dicho Estudio de Detalle se contemplará que el acceso rodado al ámbito se realizará obligatoriamente desde el vial situado al sur de dicho ámbito, definiendo sus características, dimensiones y radios de giro, de acuerdo con el informe correspondiente del Servicio de Mantenimiento de Carreteras de la Diputación Foral de Álava y previa autorización del citado Servicio.

4.- Régimen de ejecución del Planeamiento.

A los efectos de posibilitar la ejecución del Planeamiento se señala un plazo máximo para la expropiación de la parcela catastral 918 con sus correspondientes edificaciones, de 8 años a partir de la aprobación definitiva de la presente Modificación Puntual de mayo de 2010.

5.- Normativa de aplicación sobre la Zona A.

5.1. Tipos Edificatorios.

Se deberá respetar el edificio existente, pudiendo elevar su altura hasta un máximo de dos plantas (B+1) con una altura máxima al alero de 7,00 m. Se permite igualmente la reedificación con el mismo volumen contenedor como máximo.

5.2. Usos autorizados.

Se autoriza el Uso de Equipamiento Comunitario en todas sus clases (Educativo, Cultural, Recreativo, etc.) numeradas y definidas en el artículo 81 de estas Normas Urbanísticas.

Además se permite como uso compatible el Terciario en todas sus clases, numeradas y definidas en el artículo 82.

5.3. Parámetros constructivos aplicables a las nuevas edificaciones o a la rehabilitación.

Edificabilidad máxima: 2 $m^2t/m^2s$

Parcela mínima: la existente. No se autorizan parcelaciones.

Altura máxima: 7,00 m. al alero (B+1).

Ocupación máxima parcela: La definida por el edificio existente.

6.- Normativa de aplicación sobre la Zona B.

6.1. Tipos edificatorios.

Únicamente se autoriza la construcción de marquesinas de cubrición sobre las zonas de aparcamiento de vehículos.

6.2. Baimendutako erabilerak.

Komunikazio eta garraio erabilerak: bide komunikazioak: udal kaleak:

hiriko bide publikoak eta lur gaineko aparkaleku publikoak. (Ikus 87. artikulua).

6.3. Eraikin berriei aplikatu ahal zaizkien eraikitze parametroak.

Eraikigarritasuna, gehienez: 0,25 $m^2/m^2$ (markesinei gagozkiola, ehuneko 50 zenbatuko da).

Gutxieneko lurzatia: egun dagoena, ez da lurzatikatzerik onartuko.

Gehieneko garaiera: 3,00 metro hegalera.

Metroak mugara: 13,00 metro A-2124 errepidearen ardatzera eta 5,00 metro gainerako mugetara.

Eraikinen arteko tartea: 5 m.

Lurzatiak okupatutakoa, gehienez: ehuneko 50.

160. artikulua.- Katalogoa. (Lehengo 159. artikulua).

161. artikulua.- Katalogoa aldatzea. (Lehengo 160. artikulua).

162. artikulua.- Kultura ondasun kalifikatutako edo inbentariatutako ondasun higiezinak. (Lehengo 161. artikulua).

163. artikulua.- Ustezko arkeologia zonak eta zona paleontologikoak. (Lehengo 162. artikulua).

164. artikulua.- Arkitektura balioak. (Lehengo 163. artikulua).

## Iragarkiak

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

ARABAKO LEGE ETA ADMINISTRAZIO ERAKUNDEA

**6958**

**Ebazpena jakinaraztea. 116/2011 espedientea**

Beherago aipatzen den erreklamazio ekonomiko-administratiboaren prozedura dela-eta, administrazio egintza bat eman da. Egintza hori ezin izan zaio jakinarazi, ordea, interesdunari, espedientean jasota dagoen helbidean.

2007ko urtarrilaren 30eko Diputatuen Kontseiluaren 2/2007 Foru Dekretuaren bidez onartu zen Erreklamazio Ekonomiko eta Administratiboen Prozedurari buruzko Arautegiak 23. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, dei egiten zaio interesdunari Lege eta Administrazio Erakundearen bulegoetara etor dadin (Probintzia plaza, 14. 4. solairua - Gasteiz) 08:15-14:30 bitartean, jakinarazpena jasotzera. Horretarako, hamabost egun natural ditu, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epe horretan agertu ezean, jakinarazpena eginda dagoela ulertuko da ondorio guztietarako, epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hartzailea: KEPA ARINAS MARTÍNEZ jauna

Erreklamazio zenbakia: 116/2011

Administrazio egintza: ebazpena.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 7a.– Kide-idazkaria, AINARA VIDAL ZUGASTI.

6.2. Usos autorizados.

Uso de Comunicaciones y Transportes: Comunicaciones Viarias: Calles municipales:

vías públicas urbanas y aparcamientos públicos en superficie. (Ver artículo 87).

6.3. Parámetros constructivos aplicables a las nuevas edificaciones.

Edificabilidad máxima: 0,25 $m^2/m^2$ (las marquesinas computan al 50 por ciento).

Parcela mínima: Será la existente, no admitiéndose parcelaciones.

Altura máxima: Se establece en 3,00 m. a línea de alero.

Separaciones a linderos: 13,00 m. al eje de la carretera A-2124 y 5,00 m. al resto de linderos.

Separaciones entre edificaciones: 5 m.

Ocupación máxima de parcela: 50 por ciento

Artículo 160.- Catálogo. (Antiguo 159).

Artículo 161.- Modificación del Catálogo. (Antiguo 160).

Artículo 162.- Bienes inmuebles declarados Bienes Culturales Calificados o Inventariados. (Antiguo 161).

Artículo 163.- Zonas de Presunción Arqueológica y Zonas Paleontológicas. (Antiguo 162).

Artículo 164.- Valores Arquitectónicos. (Antiguo 163).

## Anuncios

### DEPARTAMENTO DEL DIPUTADO GENERAL

ORGANISMO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ÁLAVA

**6958**

**Notificación de resolución. Expediente número 116/2011**

En el procedimiento de la reclamación económico administrativa referenciada a continuación se ha dictado un acto administrativo que no ha podido ser notificado en el domicilio que consta en el expediente.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 23 del Reglamento de Procedimiento de las reclamaciones económico-administrativas aprobado por Decreto Foral 2/2007, del Consejo de Diputados, de 30 de enero, se cita al interesado para ser notificado mediante comparecencia personal en las Oficinas del Organismo Jurídico Administrativo, sitas en la Plaza de la Provincia núm. 14, 4º, de esta ciudad, en horario de 8,15 h. a 14,30 h., durante el plazo de quince días naturales siguientes al de la publicación de este anuncio.

La falta de comparecencia en plazo determinará que la notificación se entienda realizada a todos los efectos legales el día siguiente al de vencimiento del plazo señalado.

Destinatario: D. KEPA ARINAS MARTÍNEZ

Número Reclamación: 116/2011

Acto administrativo: Resolución

En Vitoria-Gasteiz a 7 de diciembre de 2011.– Vocal-Secretaria, AINARA VIDAL ZUGASTI.